

9. eranskina: Kultur Aniztasuna
Irabazi xederik ez duten entitateentzako
dirulaguntzak - 2026

Anexo 9: Diversidad Cultural
Subvenciones a entidades sin ánimo de lucro - 2026

AURKIBIDEA

1. Xedea.....	2
2. Diruz laguntzeko moduko jarduerak.....	2
3. Dirulaguntzaren kontzeptua eta zenbatekoa.....	4
4. Elkarte eta entitate onuradunak.....	5
5. Eskakerak.....	5
6. Eskakerak balioestea.....	6
7. Izapidetzea eta proposamena.....	15
8. Ebazpena.....	15
9. Ordaintzea.....	15
10. Dirulaguntza zertan erabili den justifikatzea.....	15
11. Erakunde onuradunen beste betebeharrak batzuk.....	16
12. Aurrekontua.....	16

INDICE

1. Objeto.....	2
2. Actividades subvencionables.....	2
3. Concepto y cuantía de la subvención.....	4
4. Asociaciones y entidades beneficiarias.....	5
5. Solicitudes.....	5
6. Valoración de las solicitudes.....	6
7. Instrucción y propuesta.....	15
8. Resolución.....	15
9. Abono.....	15
10. Justificación del destino de la subvención.....	15
11. Otras obligaciones de la entidad beneficiaria.....	16
12. Presupuesto.....	16

9. ERANSKINA: KULTUR ANIZTASUNA

Oinarri arautzaile bereziak, kultur aniztasuna errespetatzearen alde diharduten irabazi asmorik gabeko entitate pribatuei dirulaguntzak ematekoak.

Donostiako herritarrak askotarikoak dira. Aniztasun hori bizitzako eremu askotan adierazten da eta hiriko gizarte egituran eta nortasunean eragin zuzena du. Horren ondorioz, kultur aniztasunaren kudeaketa udal honen erronka nagusienetariko bat da.

2013an sortu zenetik Kultur Aniztasunaren Bulegoak jatorri eta kultur aniztasunaren errespetua eta aitortza sustatzen ditu. Bulego honen helburuak dira: pertsona guztien eskubide sozial, zibil eta politikoak bermatzea, eta baita arrazakeria eta xenofobiaren aurkako eta elkarbizitza eta aniztasunaren aldeko kulturarteko politikak garatzea ere. Hori guztia lortzeko erabiliko den ikuspegia integrala eta parte hartzailea izango da.

Udalak ez ezik, entitateek eta gizarte eragileek ere, funtsezko lana egiten dute kulturarteko bizikidetzaren eta gizarte kohesioaren sustapenerako.

1. Xedea

Honako oinarri hauen xedea da Donostiako Udalak, Kultur Aniztasunaren Bulegoaren bidez, 2026 ekitaldian, Donostian bertan edo Donostiarentzat interesgarri gerta daitezkeen beste esparru batzuetan kultur aniztasunaren aldeko proiektuak gauzatzeko eman ditzakeen dirulaguntzak arautzea.

Dirulaguntza horiek Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude, eta helburu estrategiko eta espezifiko hauek lortzen laguntzen dute:

ANEXO 9: DIVERSIDAD CULTURAL

Bases específicas reguladoras de la concesión de subvenciones a entidades privadas sin ánimo de lucro que desarrollan actividades a favor de la diversidad cultural.

La población donostiarra es diversa. Esa diversidad se manifiesta en diferentes ámbitos de la vida e influye en la estructura e identidad de nuestra ciudad. Es por ello que la gestión de la diversidad cultural supone uno de los principales retos de este Ayuntamiento.

Desde su creación en 2013, el Negociado de Diversidad Cultural trabaja con el fin de fomentar el respeto y reconocimiento de la diversidad cultural y de origen. Los objetivos de este negociado son: garantizar los derechos sociales, civiles y políticos de todas las personas, así como desarrollar políticas interculturales contra el racismo y la xenofobia y a favor de la convivencia y la diversidad. Todo ello desde una perspectiva transversal, integral y participativa.

No sólo el ayuntamiento, sino también las entidades y agentes sociales del municipio, desempeñan un papel fundamental en la promoción de la convivencia intercultural y la cohesión social.

1. Objeto

Es objeto de las presentes bases la regulación de las ayudas que el Ayuntamiento de San Sebastián, a través del Negociado de Diversidad Cultural, podrá otorgar durante el ejercicio 2026 para la realización de proyectos a favor de la diversidad cultural en el ámbito de la ciudad o que sean de interés para la misma.

Estas subvenciones están previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los siguientes

Helburu estrategikoak:

- Elkarleen jarduera sustatzea.
- Kulturaren arteko bizikidetzaren sustatzea.

Helburu espezifikoak:

- Kultura-aniztasunaren balio positiboa erakustera bideratutako ekintzak bultzatzea, jatorri anitzeko taldeen arteko elkarrekin handiagoa sustatuz.

objetivos estratégicos y específicos:

Objetivos estratégicos:

- Fomentar la actividad asociativa.
- Fomentar la convivencia intercultural.

Objetivos específicos:

- Impulsar acciones orientadas a mostrar el valor positivo de la diversidad cultural, fomentando una mayor interacción entre grupos de origen diverso.

2. Diruz laguntzeko moduko jarduerak

Dirulaguntzen gehieneko kopuruan bi sail ezarri dira:

A taldea.- Kultur aniztasunaren inguruko ikerketa proiektuak.

Aurkeztu ahal izango dira honako gaiekin zerikusia duten lanak: udalerrian bizi diren jatorri askotariko taldeen ezagutzarekin, haien errealitateekin eta etorkinei edo gutxiengo etnikoei eragiten dieten egoerekin.

Aurkeztu ahal izango dira baita ere, kultur aniztasunak hiriarri ekartzen dion balio gehigarria edo abantaila azpimarratzen duten ikerketa proposamenak esparru hauetan : enpleguan, irakaskuntzan, artean, kirolean, ikerketan, etab.

B taldea.- Harrera, sentsibilizazio, elkarbizitza eta parte hartze proiektuak oinarri hauekin:

- Kulturarteko ikuspegi batetik bultzatzea jatorri eta kultur aniztasunaren kudeaketa
- Elkarbizitza, topaketa eta interakzioa ahalbidetzea.
- Giza eskubideak bermatzea, eta tratu eta aukera berdintasuna sustatzea.

2. Actividades subvencionables

Se establecen dos categorías en la cuantía máxima de las subvenciones:

Grupo A.- Proyectos de Investigación relacionados con la diversidad cultural.

Se podrán presentar estudios relacionados con el conocimiento de diversos colectivos, realidades y situaciones que vive la población migrada o perteneciente a una minoría étnica.

También se podrán presentar propuestas de estudios sobre el valor o ventaja que aporta la diversidad cultural para la ciudad: en el empleo, la educación, el arte, el deporte, la investigación, etc.

Grupo B.- Proyectos de acogida, sensibilización, convivencia y participación que:

- Promuevan la gestión de la diversidad cultural y de origen desde un enfoque intercultural.
- Favorezcan el diálogo, el encuentro y la interacción.
- Garanticen el respeto de los derechos humanos y promuevan la igualdad de trato y oportunidades.

- Jatorri askotariko pertsonen parte hartzea bultzatzea eta haien ahaldunderako dinamikak aurrera eramatea.
- Euskara kohesiorako elementu gisa sustatzea.
- Elkarlana, esperientza trukea eta sareko lana bultzatzea.
- Promuevan la participación social de las personas de origen diverso y lleven a cabo dinámicas para el empoderamiento de éstas.
- Potencien el euskera como elemento de cohesión social.
- Impulsen la colaboración, el intercambio de experiencias y el trabajo en red.

Proiektu guztiak 2026ko urtarrila eta abendua bitarte gauzatuko dira.

Todos los proyectos se realizarán entre enero y diciembre de 2026

Ondorengo proiektu edo jarduerak ez dira diruz lagunduko

No podrán ser subvencionados los proyectos o actividades que:

- Entitateko bazkideentzat soilik diren proiektuak edo jarduerak.
- Arrazakeria eta xenofobiaren aldeko jarduerak.
- Genero ikuspeirik gabeko proiektuak eta emakumeen irudi estereotipatu edota pasiboa sustatzen dutenak.
- Se desarrollen de forma exclusiva para las personas asociadas.
- Fomenten el racismo y la xenofobia.
- No incorporen la perspectiva de género y promuevan una imagen estereotipada y pasiva de las mujeres.

3. Dirulaguntzaren kontzeptua eta zenbatekoa

3. Concepto y cuantía de la subvención

1.- Ematen den dirulaguntza ez da, inolaz ere, izango diruz lagundutako proiektuak eta jarduerak egitea kostatzen denaren %80 baino handiagoa. Beraz, dirulaguntza hori jasotzen duen entitateak diru ekarpen bat egin beharko du, nahitaez, edo finantzaketaren parte bat bere gain hartu. Kopuru hori diruz lagundutako proiektuak eta jarduerak egitea kostatzen den %20koa izango da gutxienez.

1.- La subvención que se conceda en ningún caso podrá superar el 80% del coste total de los proyectos y actividades subvencionadas. Por lo tanto, será necesario que la entidad beneficiaria efectúe una aportación económica o cuente con una cofinanciación mínima del 20% del coste total de los proyectos y actividades objeto de la subvención.

Eskatutako gutxieneko konfinantzazioa kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko Donostiako Udalak proiektu bererako emandako beste dirulaguntza edo laguntzarik.

Para el cálculo de la cofinanciación mínima requerida no se tendrán en cuenta otras subvenciones o ayudas concedidas por el Ayuntamiento de San Sebastián para el mismo proyecto.

Azken justifikazioan eutsi beharko zaio gutxienez, hasierako aurrekontuan jarritako finantziario portzentajeari; eta doikuntzak egin behar badira, hori bera aplikatuko da.

El porcentaje de financiación propia que pudiera aparecer en el presupuesto inicial habrá de mantenerse, como mínimo, en la justificación final y será el que se aplique para el reajuste, en su caso.

2.- Diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen proiektu edo jardueraren aurrekontu banakatu eta zehaztuan agertzen direnak eta, zalantzarik gabe, hura gauzatzeari lotuak daudenak. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan, azkenean onartu den diruz laguntzeko moduko gastua hartuko da kontuan.

Gehienez ere gastu zuzen diruz lagungarriaren %10 erabili ahal izango da proiektuaren gauzatzearekin harremana duten administrazio eta funtzionamendu gastuetarako.

Portzentaje hori dirulaguntza eskaeraren aurrekontuan eta zuriketan agertu beharko da oroharreko zenbateko bezala, eta ez dira xehekatu beharko administrazio eta funtzionamenduarekin lotutako gastu mota ezberdinak.

Diruz lagungarria den portzentaje hori ez da faktura edo gastu egiaztagirien bidez zuritu beharko.

A taldera aurkeztutako proiektuen kasuan, gehienez ere, 4.000 euro emango da ikerketa bakoitzeko.

B taldera aurkeztutako proiektuen kasuan, gehienez ere, 3.250 euro emango da proiektu bakoitzeko.

Gastu zuzen bezala kontuan hartuko dira langileak kontratatzearen ondorioz entitate eskatzaileak izandako gastuak, betiere, azalpen memorian justifikatzen bada proiektua egikaritzeko egin beharreko kontratazioa dela.

3.- Diruz lagundutako jarduerarekin ateratako dirua, diruz lagundutako proiektuan erabili beharko da.

4.- Entitate bakoitzari (A eta B) Talde bakoitzeko proiektu bakar batengatik emango zaio dirulaguntza. Proiektu bat baino gehiago aurkeztuz gero, bat aukeratzeko eta gainerakoei uko egiteko eskatuko zaio.

2.- Los gastos subvencionables serán los que aparezcan recogidos en el presupuesto desglosado y detallado del proyecto o actividad que presente la entidad solicitante y que estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma. El gasto subvencionable finalmente aprobado será el que se tomará en consideración para la determinación de la subvención.

Podrá dedicarse hasta un máximo del 10% del gasto directo subvencionable a los gastos de administración y funcionamiento asociados a la ejecución del proyecto.

Dicho porcentaje deberá incluirse en el presupuesto presentado en la solicitud y en la justificación económica como una cantidad a tanto alzado sin desglosar los distintos tipos de gastos de administración y funcionamiento.

Dicho porcentaje de gasto subvencionable no requerirá de justificación mediante facturas o justificante de gastos.

Los proyectos presentados al Grupo A se subvencionarán con un máximo de 4.000 euros por proyecto.

Los proyectos presentados al Grupo B se subvencionarán con un máximo de 3.250 euros por proyecto.

Podrán subvencionarse como gastos directos los gastos derivados de la contratación de personal por parte de la entidad solicitante siempre y cuando en la memoria explicativa del proyecto se justifique la necesidad de dicha contratación para la ejecución del proyecto.

3.- Los ingresos generados por la actividad subvencionada habrán de destinarse al proyecto subvencionado.

4.- Se subvencionará un único proyecto por Grupo (A y B) y entidad. En el caso de que presente más de un proyecto, se le requerirá para que elija uno y renuncie el resto.

4. Elkarte eta entitate onuradunak

Deialdi honetako laguntzak eska ditzakete legez eraturako irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitate pribatuek, egoitza, ordezkari eta jardun eremua Donostian izanez gero. Bestalde, halakoen helburuek, estatutu sozialek xedaturikoaren arabera, bat etorri beharko dute kultur aniztasunarekin, kulturarteko elkarbizitzarekin edo etorkinen gizarteratzearekin.

Aipaturiko entitateek Oinarri Orokorretako 3. artikuluan zehazturiko baldintzak bete beharko dituzte.

5. Eskaerak

Interesdun elkarteek eskaera aurkeztuko dute oinarri orokorretako 4. artikuluan araututako web formularioaren bitartez, eta 5. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa –gehitu beharko dute.

Oinarri orokorretako 5. artikuluan eskaturiko dokumentazioaz gain, Kultur Aniztasunaren Bulegoak entitateei honako hauek eska diezazkieke :

- Entitateak aurreko urtean egindako jardueren memoria. (MEMORIA)
- Entitatearen helburuen eta ibilbidearen deskribapen laburra (lehenago aurkeztu ez baldin bada). (IBILBIDEA)

Eskabidea eta harekin batera aurkezten diren agiriak Oinarri Orokorren 6. artikuluan ezarritako bideetatik eta zehaztutako formatu digitaletan aurkeztuko dira.

6. Eskaerak balioestea

Dirulaguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeko, besteak beste, honako alderdi hauek balioetsiko dira:

4. Asociaciones y entidades beneficiarias

Podrán solicitar las ayudas objeto de la presente convocatoria las asociaciones y entidades privadas sin ánimo de lucro legalmente constituidas que tengan su sede o delegación y marco de actuación en San Sebastián, cuyos fines, de acuerdo con lo previsto en sus estatutos sociales, estén en consonancia con la diversidad cultural, la convivencia intercultural o la inclusión de las personas migrantes.

Dichas entidades deberán cumplir los requisitos del artículo 3 de las Bases Generales.

5. Solicitudes

Las entidades interesadas presentarán solicitud en el formulario web regulado en el artículo 4 de las Bases Generales acompañado de la documentación prevista en su artículo 5.

Además de la documentación solicitada en el artículo 5 de las bases generales de la convocatoria, el Negociado de Diversidad Cultural podrá solicitar a la entidad:

- La memoria de actividades de la entidad del año anterior. (MEMORIA)
- Una breve descripción de los objetivos y trayectoria de la entidad. (siempre que no haya sido presentada con anterioridad). (TRAYECTORIA)

La solicitud y la documentación de la que se acompaña se presentará a través de los canales y en los formatos digitales establecidos en el artículo 6 de la Bases generales.

6. Valoración de las solicitudes

Para la concesión de la subvención y la determinación de su importe se valorarán los siguientes aspectos:

A Taldea: Ikerketa proiektuak

1. Elkarte eskatzailearen ibilbidea eta proiektuaren bideragarritasuna, 0 eta 25 puntu artean:

- Elkartea zenbateraino ezarrita dagoen eta lotura duen Donostiarekin eta Udalarekin (9 puntu)
- Elkarreak egin duen ibilbidea eta esperientzia egiaztatua kultur aniztasunaren arloan eta ikerketa garatuko den eremuan (8 puntu)
- Iraunkortasun ekonomikoa, finantzaketa iturriak eta aurkeztutako aurrekontuaren koherentzia garatu beharreko helburu eta ekintzekin (8 puntu)

2. Ikerketaren kalitate orokorra eta aztergaiari egokitzea, 0 eta 62 puntu artean:

- Proiektuaren formulazioa atal guztietan; baita koherentzia ikerketaren justifikazioaren eta helburuen, antolakuntza eta funtzionamenduaren, beharrezko baliabideen, jardueren eta lortu nahi diren emaitzen artean ere (10 puntu)
- Ikertzea proposatzen den gaiaren adierazgarritasuna eta egokitasuna Donostiako kultur aniztasunaren kudeaketarekiko (6 puntu)
- Ikerketa lanaren argitasuna eta bideragarritasuna, metodologia, kronograma eta aurreikusitako ebaluazio neurriak barne (5 puntu)
- Kulturarteko ikuspegia ikerketaren fase guztietan txertatzea (7 puntu)
- Lana garatu behar duten pertsona edo pertsonen kulturartekotasunarekiko esperientzia eta trebetasuna (4 puntu)
- Migratzaile eta gutxiengo etnikoko pertsonen parte hartzea aktiboa ikerlanean (8 puntu)

Grupo A: Proyectos de Investigación

1. Trayectoria de la entidad y viabilidad económica del proyecto, de 0 a 25 puntos:

- Grado de implantación y vinculación con la ciudad y con el Ayuntamiento de San Sebastián (9 puntos)
- Trayectoria y experiencia demostrada por la entidad en diversidad cultural y en el ámbito en el que se vaya a desarrollar la investigación (8 puntos)
- Sostenibilidad económica, fuentes de financiación y coherencia del presupuesto presentado con los objetivos y acciones a desarrollar (8 puntos)

2. Calidad global del trabajo de investigación y su adecuación al objeto de estudio, de 0 a 62 puntos:

- La formulación del proyecto en todos sus apartados y la coherencia de la justificación de la investigación con los objetivos, la organización y el funcionamiento, los recursos necesarios, las actividades y los resultados esperados (10 puntos)
- Representatividad y pertinencia del tema que se propone investigar con respecto a la gestión de la diversidad cultural de Donostia (6 puntos)
- Claridad y viabilidad del trabajo de investigación, incluida metodología, cronograma y medidas de evaluación previstas (5 puntos)
- Incorporación de la perspectiva intercultural en todas las fases de la investigación (7 puntos)
- Experiencia y formación en materia de interculturalidad de la persona o personas que desarrollen el trabajo (4 puntos)
- Participación activa de personas migradas o culturalmente diversas en la investigación (8 puntos)

- Ikerketaren emaitzen zabalpena eta jasotako ezagutzaren aplikagarritasuna egungo edo etorkizuneko ekimen konkretuetan (5 puntu)
- Koordinazioa eta sareko lana beste eragilerekin (5 puntu)
- Erakunde eskatzailean eta proiektuaren kudeaketan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea (4 puntu)
 - Elkarrekin erabaki gune eta ardura postuetan emakumeen presentzia areagotzea (2 puntu arte):
 - Elkarteko lehendakaria emakumea izateagatik: puntu 1
 - Elkarteko zuzendaritza batzordean gutxienez %40a emakumeak izateagatik: puntu 1
 - Berdintasunerako tresnak txertatzea proiektuaren kudeaketan (2 puntu):
 - Proiektuaren kudeaketan berdintasunari buruzko prestakuntza duten pertsonak gehitzeagatik, bai 2024. eta 2025. urteetan udalak eskainitakoa, bai berdintasunean aditua den beste entitate batek eskeinitakoa. Puntu 1.
 - Proiektuaren kudeaketan berdintasunaren arloan ibilbidea duten pertsonak gehitzeagatik. Hori egiaztatzeke, azalpen-memoria bat aurkeztu behar da, berdintasunaren arloan egindako jardura eta lan garrantzitsuenak adieraziz. Puntu 1
- La difusión de los resultados de la investigación y aplicabilidad del conocimiento adquirido en acciones concretas de proyectos presentes o futuros (5 puntos)
- La coordinación con otras entidades y el trabajo en red (5 puntos)
- La introducción de medidas para promover la igualdad de mujeres y hombres en la entidad solicitante y en la gestión del proyecto (4 puntos)
 - La presencia de las mujeres en los puestos de decisión y responsabilidad en las asociaciones (2 puntos):
 - Si la persona que ostenta la presidencia de la asociación es mujer: 1 punto
 - Si la junta directiva de la asociación está formada por al menos un 40% de mujeres: 1 punto
 - La incorporación a la gestión proyecto de herramientas en igualdad (2 puntos):
 - Por incorporar a la gestión del proyecto personas con formación específica en igualdad, tanto la ofertada por el Ayuntamiento en los años 2024 y 2025, como otra formación impartida por entidades expertas en igualdad. 1 punto.
 - Por incorporar a la gestión del proyecto personas con trayectoria en materia de igualdad, acreditada mediante la presentación de una memoria explicativa indicando las actuaciones y trabajos más relevantes realizados en materia específica de igualdad. 1 punto

- Proiektuetan berdintasun ikuspegia txertatzea (8 puntu):
 - Proiektuaren helburuen artean, genero-ikuspegia sustatzen duten helburuak berariaz jasotzea: 2,5 puntu
 - Proiektuan parte hartzen duten pertsonen familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko edota zaintzen erantzukizuna jarduerekin uztartzeko neurriak jasotzea: puntu 1
 - Emakumeek proiektuan aktiboki parte hartzearen sustatzea: 2,5 puntu.
 - Emakumeen irudi ez estereotipatua erabiltzea eta zabaltzea : 2 puntu
- La incorporación de la perspectiva de igualdad en los proyectos (8 puntos):
 - La inclusión en el proyecto de objetivos dirigidos expresamente a promover la perspectiva de género: 2,5 puntos.
 - La inclusión de medidas para la conciliación entre las actividades y las responsabilidades de cuidados y la conciliación de la vida familiar, laboral y personal de las personas participantes en el proyecto: 1 punto.
 - La promoción de la participación activa de las mujeres en el proyecto : 2,5 puntos.
 - La utilización y difusión de una imagen no estereotipada de las mujeres : 2 puntos

3. Zeharkako beste ikuspegiak txertatzea, 0 eta 23 puntu artean:

- Interseksionalitatea txertatzea honako dimentsioak kontuan hartuta: adina, jatorria, etnia, generoa eta bestelako alderdi sozialak (6 puntu)
- Euskara sustatzea gizarte kohesiorako tresna gisa (8 puntu)
- Ikuspegi parte hartzaileak sustatzea (9 puntu)

3. Incorporación de otros enfoques transversales, de 0 a 23 puntos:

- Incorporación de la interseccionalidad, teniendo en cuenta dimensiones como la edad, el origen, la etnia, el género y otros factores sociales (6 puntos)
- Fomento del euskera como elemento de cohesión social (8 puntos)
- Promoción de un enfoque participativo (9 puntos)

Egitasmoak gutxienez 50 puntu jaso beharko ditu hasierako puntuazioan, diruz lagundu ahal izateko.

Hasierako puntuazioa ponderatuko da puntu gehien jaso dituen proiektuarekiko, ondorengo formularen arabera, eta horrela azkeneko puntuazioa lortuko da.

Para ser susceptible de concesión de subvención, el proyecto presentado por la entidad deberá de obtener una puntuación mínima inicial de 50 puntos.

Los puntos iniciales se ponderarán respecto al proyecto de mayor puntuación en función de la siguiente fórmula, obteniendo así la puntuación final.

J_p

$$A_p = \frac{\quad}{G_p} \times J_p$$

non:

A_p = azkeneko puntuazioa

J_p = jasotako hasierako puntuak

G_p = puntu gehien jaso dituen proiektuaren puntuazioa

Proiektu bakoitzari emandako azkeneko puntu kopurua puntu bakoitzaren balioaz biderkatuta aterako da dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa. Puntu bakoitzaren balioa eragiketa hau eginda aterako da: aurrekontua guztira zati diruz laguntzeko moduko proiektu guztiei emandako azkeneko puntuazioaren batuketara.

Diruz laguntzeko proiektu bakarra dagoenean, hasierako puntuak azkeneko puntuen berdina izango dira eta ez da aurreko formula aplikatuko. Kasu horretan, puntuaren balioa honela kalkulatu da: talde honetan diruz lagundu daitekeen gehieneko kopurua (4.000€) zati 85, non 85 den dirulaguntza kopuru guztia jasotzeko gutxienezko puntuazioa.

Horrenbestez:

1. talde honetarako dirulaguntza kopuru osoa (4.000€) jasoko du proiektuak gutxienezko 85 puntu jasotzen baditu.
2. 85 puntuak lortzen ez baditu, dirulaguntza kopurua kalkulatu da jasotako puntuak puntuaren balioarengatik biderkatuta.

P_o

$$P_f = \frac{\quad}{P_{max}} \times P_o$$

donde:

P_f = puntuación final

P_o = puntuación inicial obtenida

P_{max} = puntos del proyecto de mayor puntuación

Los puntos finales obtenidos por cada proyecto multiplicados por el valor del punto determinará la cuantía de la subvención otorgada. El valor del punto se fijará dividiendo el total de presupuesto entre la suma de los puntos finales de cada proyecto.

En el caso de que haya un único proyecto a subvencionar, los puntos iniciales serán iguales a los finales y no se aplica la fórmula anterior. En este caso, el valor del punto se calcula dividiendo el importe máximo subvencionable para este grupo (4.000€) entre 85, que es la puntuación a partir de la cual se obtendrá el importe de subvención máximo posible.

En consecuencia:

1. Se le concederá el total del importe de subvención para este grupo (4.000€) siempre que obtenga como mínimo 85 puntos.
2. Si no alcanza los 85 puntos, el importe de la subvención se calculará multiplicando los puntos obtenidos por el valor del punto.

B taldea.- Harrera, sensibilizazio, elkarbizitza eta parte hartze proiektuak

Grupo B: Proyectos de acogida, sensibilización, convivencia y participación

1. Elkarte eskatzailearen esperientzia eta ibilbidea, 0 eta 23 puntu artean:

- Elkartearen esperientzia egiaztatua proiektua garatuko den eremuan (6 puntu)
- Elkarreak kultur aniztasunaren arloan erakutsitako ibilbidea (8 puntu)
- Elkarrea zenbateraino ezarrita dagoen eta lotura duen Donostiarekin eta Udalarekin (9 puntu)

1.- Experiencia y recorrido de la entidad solicitante, de 0 a 23 puntos:

- Experiencia contrastada de la entidad en el ámbito en el que se vaya a desarrollar el proyecto (6 puntos)
- Trayectoria demostrada por la entidad en el ámbito de la diversidad cultural (8 puntos)
- Grado de implantación y vinculación con la ciudad y con el Ayuntamiento de San Sebastián (9 puntos)

2. Proiektuaren formulazioa eta bideragarritasuna, 0 eta 26 puntu artean:

- Proiektuaren atal guztiak argi formulatzea eta koherentzia izatea hauen artean: ekintzaren justifikazioa, helburuak, proposatutako jarduerak, iraupena, antolaketa eta funtzionamendua, beharrezko baliabideak, lortu nahi diren emaitzak eta aurreikusitako ebaluazio-neurriak (12 puntu)
- Beste erakunde batzuekin lankidetzan eta modu koordinatuan lan egitea (boluntariotza, elkarreak eta beste erakundeak, sareak...) (6 puntu)
- Iraunkortasun ekonomikoa, finantzaketa iturriak eta aurreikusitako aurrekontuaren koherentzia garatu beharreko helburu eta ekintzekin (8 puntu)

2. Formulación y viabilidad del proyecto, de 0 a 26 puntos:

- La formulación clara del proyecto en todos sus apartados y la coherencia entre la justificación de la acción, los objetivos, las actividades propuestas, la duración, la organización y funcionamiento, los recursos necesarios, los resultados que se espera obtener, y las medidas de evaluación previstas (12 puntos)
- El trabajo en colaboración y coordinación con otras entidades (voluntariado, asociaciones u otras entidades, redes...) (6 puntos)
- Sostenibilidad económica, fuentes de financiación y coherencia del presupuesto presentado con los objetivos y acciones a desarrollar (8 puntos)

3. Harrera eta kulturarteko bizikidetzaren sustatzea, 0 eta 38 puntu artean:

- Laguntzea atzerritar jatorriko pertsonen harrera prozesuan (7 puntu)
- Elkarbizitza sustatzea hauen bitartez:

3. Fomento de la acogida y la convivencia intercultural, de 0 a 38 puntos:

- Apoyo al proceso de acogida de las personas de origen extranjero (7 puntos)
- Promoción de la convivencia intercultural a través del diálogo, el

elkarrizketa, elkar ezagutza eta aitortza, topaketarako espazioak eta elkarreragina (9 puntu)

- Sustatzea etorkinen eta gutxiengo etnikoen parte hartzea eta ahalduntzea (7 puntu)
- Diskriminazioari, arrazakeriari eta xenofobiari aurre egitea eta aukera eta tratu berdintasuna bermatzea (7 puntu)
- Donostiar herritarrak sentsibilizatzea kultur aniztasunaren arloan eta aniztasun horren balioa azpimarratzea proiektuak hainbat esparruetara zabalduz: hezkuntzara, gazteriara, kiroletara, kulturara, auzoetara, etab (8 puntu)

4. Zeharkako beste ikuspegi batzuk txertatzea, 0 eta 23 puntu artean:

- Proiektuan genero-ikuspegia sartzea, emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuko duena estereotipatu gabeko posizioetatik, emakumeen ahalduntzea bultzatuz (8 puntu)
 - Emakumeek proiektuan aktiboki parte hartzearen sustatzea: 2,5 puntu.
 - Proiektuaren helburuen artean, genero-ikuspegia sustatzen duten helburuak berariaz jasotzea: 2,5 puntu.
 - Emakumeen irudi ez-estereotipatua erabiltzea eta zabaltzea: 2 puntu
 - Proiektuan parte hartzen duten pertsonen familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko edota zaintzen erantzukizuna jarduerekin uztartzeko neurriak jasotzea: puntu 1

conocimiento y reconocimiento mutuo, la generación de espacios de encuentro y la interacción (9 puntos)

- Fomento de la participación activa y el empoderamiento de la población migrada y perteneciente a minorías étnicas (7 puntos)
- Lucha contra la discriminación, el racismo y la xenofobia y garantizar la igualdad de trato y de oportunidades (7 puntos)
- Sensibilización de la población donostiarra en materia de diversidad cultural y puesta en valor de esa diversidad a través del desarrollo de proyectos en ámbitos como la educación, la juventud, los deportes, la cultura, al barrio, etc (8 puntos)

4. Incorporación de otros enfoques transversales, de 0 a 23 puntos:

- Introducción en el proyecto de la perspectiva de género, que fomente la participación activa de las mujeres desde posiciones no estereotipadas, contribuyendo a su empoderamiento (8 puntos)
 - La promoción de la participación activa de las mujeres en el proyecto : 2,5 puntos.
 - La inclusión en el proyecto de objetivos dirigidos expresamente a promover la perspectiva de género: 2,5 puntos.
 - La utilización y difusión de una imagen no estereotipada de las mujeres: 2 puntos
 - La inclusión de medidas para la conciliación entre las actividades y las responsabilidades de cuidados y la conciliación de la vida familiar, laboral y personal de las personas participantes en el proyecto: 1 punto.

- Erakunde eskatzailean eta proiektuaren kudeaketan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak sartzea (4 puntu arte)
 - Elkartean erabaki gune eta ardura postuetan emakumeen presentzia areagotzea (2 puntu arte):
 - Elkarteko lehendakaria emakumea izateagatik: puntu 1
 - Elkarteko zuzendaritza batzordean gutxienez %40a emakumeak izateagatik: puntu 1
 - Berdintasunerako tresnak txertatzea proiektuaren kudeaketan (2 puntu):
 - Proiektuaren kudeaketan berdintasunari buruzko prestakuntza duten pertsonak gehitzeagatik, bai 2024. eta 2025. urteetan udalak eskainitakoa, bai berdintasunean aditua den beste entitate batek eskeinitakoa. Puntu 1.
 - Proiektuaren kudeaketan berdintasunaren arloan ibilbidea duten pertsonak gehitzeagatik. Hori egiaztatzeko, azalpen-memoria bat aurkeztu behar da, berdintasunaren arloan egindako jardura eta lan garrantzitsuenak adieraziz. puntu 1
 - Intersekzionalitatea txertatzea honako dimentsioak kontuan hartuta: adina, jatorria, etnia, generoa eta bestelako alderdi sozialak (4 puntu)
 - Euskararen sustapena gizarte kohesiorako tresna gisa (7 puntu)
- La introducción de medidas para promover la igualdad de mujeres y hombres en la entidad solicitante y en la gestión del proyecto (4 puntu)
 - La presencia de las mujeres en los puestos de decisión y responsabilidad en las asociaciones (2 puntos):
 - Si la persona que ostenta la presidencia de la asociación es mujer: 1 punto.
 - Si la junta directiva de la asociación está formada por al menos un 40% de mujeres: 1 punto
 - La incorporación a la gestión proyecto de herramientas en igualdad (2 puntos):
 - Por incorporar a la gestión del proyecto personas con formación específica en igualdad, tanto la ofertada por el Ayuntamiento en los años 2024 y 2025, como otra formación impartida por entidades expertas en igualdad. 1 punto.
 - Por incorporar a la gestión del proyecto personas con trayectoria en materia de igualdad, acreditada mediante la presentación de una memoria explicativa indicando las actuaciones y trabajos más relevantes realizados en materia específica de igualdad. 1 punto
- Incorporación de la interseccionalidad, teniendo en cuenta dimensiones como la edad, el origen, la etnia, el género y otros factores sociales (4 puntos)
- Fomento del euskera como elemento de cohesión social (7 puntos)

Egitasmoak gutxienez 50 puntu jaso beharko ditu hasierako puntuazioan diruz lagundu ahal izateko.

Proiektu bakoitzak jasotako hasierako puntuazioa ponderatuko da puntu gehien jaso dituen proiektuarekiko, ondorengo formularen arabera, eta horrela azkeneko puntuazioa lortuko da.

$$A_p = \frac{J_p}{G_p} \times J_p$$

non:

A_p = azkeneko puntuazioa

J_p = jasotako hasierako puntuak

G_p = puntu gehien jaso dituen proiektuaren puntuazioa

Proiektu bakoitzari emandako azkeneko puntu kopurua puntu bakoitzaren balioaz biderkatuta aterako da dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa. Puntu bakoitzaren balioa eragiketa hau eginda aterako da: aurrekontua guztira zati diruz laguntzeko moduko proiektu guztiei emandako azkeneko puntuazioaren batuketa.

Puntuen arabera eman beharreko diru kopuruak eskatutako guztizkoa gaudituko balu, diferentzia kenduko da. Diru soberakina puntu gehien lortu duten 5 elkarte onuradunen artean zuzen banatuko da.

Atal honetan zerrendaturiko alderdiak balioetsiko dira elkarte eta entitateek web formularioan jasotako informazioa eta aurkeztu lezaketen beste edozein argibide oinarri hartuta.

7. Izapidetzea eta proposamena

Eskaerak Kultur Aniztasunaren Bulegoko teknikari batek izapidetuko ditu.

Para ser susceptible de concesión de subvención, el proyecto presentado por la entidad deberá de obtener una puntuación mínima inicial de 50 puntos.

Los puntos iniciales se ponderarán respecto al proyecto de mayor puntuación en función de la siguiente fórmula, obteniendo así la puntuación final.

$$P_f = \frac{P_o}{P_{max}} \times P_o$$

donde:

P_f = puntuación final

P_o = puntuación inicial obtenida

P_{max} = puntos del proyecto de mayor puntuación

Los puntos finales obtenidos por cada proyecto multiplicados por el valor del punto determinará la cuantía de la subvención otorgada. El valor del punto se fijará dividiendo el total de presupuesto entre la suma de los puntos finales de cada proyecto.

Cuando la cantidad resultante calculada en función de los puntos obtenidos sea mayor que la subvención solicitada se restará la diferencia, repartiéndose el excedente de forma equitativa entre los 5 proyectos que hubieren obtenido mayor puntuación.

La valoración de los aspectos señalados en este punto se hará en base a la información que incluyan las asociaciones y entidades en el formulario web de solicitud y a cualquier otra que puedan aportar.

7. Instrucción y propuesta

La instrucción de las solicitudes corresponderá a una técnica del Negociado de Diversidad Cultural.

Oinarri orokorretako 9. artikulua aipatzen duen Balioespen Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua.
- Lankidetzako, Giza Eskubideetako eta Kultur Aniztasuneko atalburua.
- Kultur Aniztasunaren Bulegoko teknikari bat.

Eskaerak aztertzerakoan, organo izapidegileak eskatzaileei dei egin diezaieke, beharrezkotzat jotzen dituen argibide guztiak lortzeko.

8. Ebazpena

Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea da prozedura hori ebazteko eskumena duen organoa.

9. Ordaintzea

Dirulaguntza bi epetan ordainduko da:

- Izendatutako kantitatearen %70a eskumena duen organoak ematea onartzen duen unean.
- %30a dirulaguntza justifikatzeko eskaturiko dokumentuak aurkeztu eta onatzen jo ondoren, oinarri orokorretako 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, teknikariek balioetsitakoan.

10. Dirulaguntza zertan erabili den justifikatzea

Dirulaguntzak justifikatzeko, 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte deialdiko oinarri orokorretako 16. artikuluan eskaturiko dokumentuak.

La Comisión de Valoración a la que se refiere el artículo 9 de las bases generales estará compuesta por:

- El jefe de Servicio de Educación y Promoción Social.
- La jefa de sección de Cooperación, Derechos Humanos y Diversidad Cultural.
- Una técnica del Negociado de Diversidad Cultural.

En el proceso de análisis de las solicitudes, el órgano instructor podrá solicitar la audiencia de las entidades solicitantes al efecto de recabar toda aquella información que considere necesaria.

8. Resolución

El órgano competente para resolver el procedimiento es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián.

9. Abono

La subvención se abonará en dos partes:

- Un 70% de la cantidad concedida, en el momento de la aprobación de la concesión por el órgano competente.
- Un 30% una vez presentados y validados los documentos exigidos para la justificación de la subvención en los términos establecidos en el artículo 16 de las bases generales y realizada la valoración técnica correspondiente.

10. Justificación del destino de la subvención

El plazo de presentación de la justificación de las subvenciones mediante la documentación requerida en el artículo 16 de las bases generales de la convocatoria finalizará el 31 de enero de 2027.

11. Erakunde onuradunen beste betebeharrak

Proiektuetarako laguntzak lehen azaldutako baldintzetan emateak berekin dakar elkarte edo entitate onuradunak Udalarekin lankidetzan aritzeko, herritarrei proiektuaren garapenaren berri emateko eta informazioa emateko.

Era berean, elkarte edo erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du diruz lagundutako jardura edo proiektua elkartekideei jakinarazteko eta, ahal duen neurrian, interesdunei eta, oro har, herritarrei jakinarazteko.

12. Aurrekontua

Laguntza ekonomikoetarako bideratuko den aurrekontua **54.150** eurokoa izango da guztira. Horietatik, 8.000 euro A taldeko eskaerentzako izango dira, eta **46.150** euro B taldeko eskaerentzako.

A taldeko aurrekontu guztia bukatzen ez bada, gelditzen den dirua B taldearen aurrekontuari erantsiko zaio.

11. Otras obligaciones de la entidad beneficiaria

La concesión de ayudas a proyectos en los términos anteriormente descritos conlleva el compromiso de la asociación o entidad beneficiaria a colaborar con el Ayuntamiento en la difusión e información a la ciudadanía sobre el desarrollo del proyecto.

Así mismo, la asociación o entidad beneficiaria se compromete a comunicar a las personas asociadas la realización de la actividad o proyecto subvencionado y a divulgarlo, en la medida de sus posibilidades, entre las personas interesadas y la ciudadanía en general.

12. Presupuesto

El total de las ayudas económicas asciende a **54.150** euros, de los cuales 8.000 euros se destinarán a atender las solicitudes del Grupo A y **46.150** euros a atender las solicitudes del Grupo B.

En caso de que no se agote todo el presupuesto del grupo A, la cantidad restante se sumará al presupuesto destinado al Grupo B.